

HEZKUNTZAREN EBALUAKETARAKO AURREBALDINTZAK

Jaione Apalategi Begiristain

Gai honen asmo orokorra bitan banatzen da, alde batetik: a) asko hitz egiten den, eta hitz egin beharko den, Hezkuntza/Ebaluaketaz sakondu, kontzeptu hauen inguruko berriak emanez, eta gure abiapuntua hezkuntzaren ebaluaketa kualitatiboaren ildoan kokatzea. Pedagogiaz, ihardutean, berriz, hezkuntzak zientzia izateko dituen arrazoiak zein baldintzak mugatu beharrak, haren epistemologiaz arduratzera eramango gaitu. Jarraian, hezkuntz sistemaren ebaluaketa egiteak zertaz hitz egitea esan nahi duen adierazten dugu, hots, kultura orokorra-askatasuna-kultura espezializatua. Azkenik, eskolaren erakuntz ezagumenduei esker, ikastetxearen ebaluaketaz ihardungo dugu. Beste alde batetik: b) hemen jasotzen den berrikuntza nabarmena hauxe da: "euskal irakaskuntza" eraikitzeko, aurrez bete behar diren baldintza eta urratsez hitz egiten dela.

Abiapuntua

Lehen lehenik, Hezkuntza eta Ebaluaketa zer diren azalduz hasiko gara.

Orohar, Hezkuntza, era arruntenean adieraziz, gizakien berezko, nabarmen eta ikur nagusia den HIZKUNTZAren bidez, pentsamendua aberasteko, bizkortzeko eta sendotzeko egiten den nahitako asmoen ekinbidea dugu.

Hezkuntza, gizarte-ereduen arabera desberdindu egiten da; hezkuntzaz gauza bera uste eta ulertu arren, era askotara jorratzen da. Hezkuntza, lehen eta behin esan, ez da eskolaroari dagokion zerbaitez soilik. Bere ekintza, gizabanakoaren bizi guztian luzatzen da eta gizartearen edozein arlotan aurkitzen da. Hezkuntza, ikastetxeez kanpo (haurtzaindegi, ikastola, eskola, lizeo, lanbide-eskola, ...unibertsitateen) beste motako erakundeetan ere egiten da. Ikastetxeetan, ebaluaketa egiteak, arlo asko kontutan hartzea suposatzen du: ikastetxearen ebaluaketa, irakaslearena, ikaslearena, egitarauena, irakaskuntz-ikaskuntzarena, ihardukerena (eskola eta gurasoak, gizarte hurbila, errealitatea, legea, erakundeak,...) jarrerena, ... eta hezkuntz ikerketaren beraren ebaluaketa. Ebaluaketa egiterakoan Hezkuntzaren edozein mailatan, bi bide ditugu:

a) Gure "hezkuntz inguruan" arrunta den ebaluaketa kuantitatibo=

datua=epaia=zenbakia=onespena edo gaitzespena.

b) Guk bideratu eta landu nahi dugun ebaluaketa kualitatiboak, zenbait baldintza bete beharrean aurkitzen da, hots: 1. Albiste "bideratuaren" eta "antolatatuaren" ildotik abiatu.

1. Albiste "bideratuaren" ildotik abiatu.
2. Datuen bilketa egin.
3. Epai unea igaro.
4. Erabaki kontsentsuatu erdietsi.

Hezkuntz ebaluaketaren ildoak

Hezkuntzaren eremuan, ebaluaketa egiteak, zenbait atal bereiztea suposatzen du. Ebaluaketaren hezurdura eta mamia, esanahi bereziko hitz batzuen ingurutik datorkigu, hots: hezkuntza, pedagogia, ikastetxea eta erakundea bereziki. Banaka adierazten saiatuko gara.

Giza zientzien barne, Hezkuntza, egoera korapilatsua adierazten digun esparrua dugu. Pedagogiak, hezkuntz zientziak eta epistemologia ditu bere izen-abizenak. Arrazoi hauexengatik, Hezkuntz ebaluaketari buruzko sailkapen logiko-estrukturala, zein araketa-lanak oso zailak izaten dira.

Beraz, gaia behar den zientzifikotasunarekin hartzeko, hezkuntz gertakizunen sailkapen pragmatiko-sistemikoa erabil daiteke. Honetarako, "hezkuntz egitarau", "eskola erakuntza" eta "ekintza pedagogikoetara" hurbildu behar da.

Bestalde, Pedagogia eta bere ikerketaren esparrua teori erai- kitzaileri jarraiki aztertzen badugu, bere epistemologiak¹, oinarrizko hiru arazori aurre egitera bultzatzen gaitu:

1. Pedagogiaren zientzizazioa: orain, gure artean indarrean dabilen Pedagogia, ideologia zientifiko eta akademizistaz josirik dago; Bestalde, itxurazko argudio zientzizale eta legitimatzailetik urrun. Pedagogiaren ildoak, epistemologia deskribatzaile eta irizpidetsua lantzean legoke.

2. Pedagogia eta interdisziplinaritatea eraiki, landu eta ebaluatu.

3. Pedagogiaren teoria eta praktikaren arteko erlazioak sakondu eta hedatu.

Gure Pedagogi kontzepzioa, ebaluaketa bideratzeko balioko diguna, alde batetik: emaitza, kontrola, analisia; eta bestaldetik: praktiken bai hezkuntz ekintzen loturara eta hobekuntzara norabideturik legokeen ezagutza arloa izango litzateke.

Bide batez, hemen gogoratu, hezkuntz eraikitzaileak dioena eta egiten duena, ebaluaketa zientifikoa lantzerakoan;

a) Heziketa teknikoak ahalik eta gehien zehaztu. Honetarako teknika, berezia, erabiltzen duelarik.

b) Lankidetasuna bilakatu, abiapuntu eta erabakiak hartzeko unean.

c) Aurrepauso eta ondorioei buruzko azterketa sakona bideratu.

Bereziki, erakundeetan jorratzen den Hezkuntza, goian aipatutako urrats horien araberrakoa bada, ikastetxe bateko eraldakuntza orokorra (irakasle, ikasle, laguntzaile, aholkulari,..abar) desorekatzetik eta desnorabidetzetik, sakonki urrunduko da. Baina ikastetxeko hezkuntz eraldakuntzan, bada, zer esan handia duen osakinik: gizartea. Ikastetxea, hezkuntz erakunde bezala, kanpoko egoerari loturik dago, hezkuntz izatearen berezko giza- tasunagatik, giza politikatik oso hurbil azaltzen zaigu. Politika egoeraren arrazoia, gehienetan, ebaluaketa orduan arrazoi teknikoak izan beharrean, arrazoi "politiko" bihurtzen dira.

Gure inguruan behintzat, oraingoz, ez da Hezkuntz Ebaluaketa teknikorik egiten, aldiz nik "hezkuntz ebaluaketa ofiziala" deituko nukeenak irakas- kuntzaren efikazia, kalitatea, hedapena, errentabilitatea, aukerak, antolakuntza, ereduak, kurrikuluna... eta etorkizuna bilatzen ditu. Non gelditzen da Hezkuntzaren Iker- ebaluaketa estraofiziala?²

Hezkuntz sistema eta ebaluaketa

Gizarte bateko hezkuntz asmo orokorrak eta ekinbideak, "Hezkuntz Sistema"(H.S.) deituriko proiektuan biltzen dira.

Hezkuntz Sistemek hezkuntza nazionala adierazten dute; hots, Ipar Ameriketako hezkuntz sistema, Noruegakoa h.s., Bretaina Handiako h.s., Luxenburgokoa, eta abar. Hezkuntz Sistema, hezkuntz proiektu

soziala dugu. Beraz, gizartea oso-osoan harturik, ondasun egokiagora eramán nahi duen proiektua hain zuzen ere.

Hezkuntza gizartearen arabera izaten da, hezkuntzaz gauza bera uste arren, era askotara jorra daiteke. Komenigarria deritzot, gure "hezkuntz" egoerarako, Parisko, CERAP³ erakundeari jarraiki, Hezkuntz Sistema bat eraikitzeak zer pauso eman beharra duen aztertzea.

1. Kultura orokorraren sustentoa aurkitu. Maila honen helburu orokorra, gehiengoentzat, behar gutxien hedatuaz, gogoetaren kalitatea lantzea da. Helburu honen abiapuntu, hizkuntza litzateke. Nola molda daitezke Espainiako H.S., "berria izan arren, eta Frantziako H.S. gure hezkuntz helburu orokorrera? Atal honetan gogokoa zait J. Oteizak⁴ idatzitakoa aipatzea, gure "hezkuntz aurrebaldintza" bertan dugulako, hain zuzen ere: "*cuando hemos dejado perderlo todo es muy cómodo y muy fácil aparentar: el idioma lo es todo. Mi teoría es contraria, se invierte la relación: el problema no es devolver primero el idioma al hombre sino al idioma (el que nos queda) el hombre (no el que nos queda, si nos queda algo, sino el hombre entero que teníamos dentro del idioma). ...Este hombre que se recupera a sí mismo, sabrá como recuperar su idioma. ...es el hombre activo en su cultura, el de nuestro estilo cultural.*

...Nuestra crisis todas son de política cultural de hombre, de reeducación de político en sensibilidad

contemporánea, de reimaginación en vasco de niño nuevo y si así no es acompañado, el euskera no se recuperará solo."

2 Askatasuna erakutsi. Pentsatzeko zirrara eta kemena ekarriko duen tresneria litzateke. Honetarako ezagupen-multzo trinkoak bere bitarteko teknikoekin eskainiko dira. Pentsamendu askea, ez da bapatean edo bere kaxa sortzen den zerbait, baizik eta balorei loturik dator, eta hauek motibazioaren ardatza ditugu. Beraz honekin esan nahi dugu, H.S. batek ez diola bakarrik garrantzia eman behar pentsamenduari, baizik eta hau, sentimentu eta ekinari loturik landu behar dela, gizabanakoa bere ikasketaren eta bere biziaren arduraduna izan dadin. H.S. bateko eginkizun sendoena dugu berau. Norberarekiko eta besteenganako maitasuna eta begirunea sortzeko, ezinbestekoa. Gizarte eta gizaki "osansuntsua" eraikitzeke nahitaezko baldintza⁵ ..."*La educación está actualmente tan distorsionada y lo primero que hay que decir es que no es lo mismo que escolarización.*" Euskal irakaskuntzari lekioken H.S., gizarte osasuntsua bideratzeko nahi genuke. Horrengatik, Txepetxek⁶ dioenarekin ados gaude: "*Por educación entendemos el esfuerzo que se ha de poner en marcha desde el Euskera y por parte de sus hablantes completos para integrar al individuo con la realidad, no con la sociedad. Es decir, para educar individuos (al tiempo que se les completa lingüísticamente) no para que se adapten al sistema social, sino para que sean capaces de cambiarlo en la dirección específica*

del progreso humano. ... "Un sistema que dé no solo importancia al pensamiento, sino también al sentimiento y a la acción, que ponga la cooperación en lugar de la competitividad, y haga al sujeto protagonista de su aprendizaje y de su vida."

3. H.S. baten hirugarren bete-beharra, **kultura espezializatua** bideratzea da. Orohar, esan genezake, derrigorrezko ikasketak bukatu ondorengoari deitzen zaiola horrela. Pauso logikoa badirudi ere nahikoa bihurrikeria eta ustekabeak sortzen ditu atal honetako erabakiak. Zer esanik ez "gure hezkuntz" egoerari dagokionez!. Euskaratik ikusita egoera zaila dela esatea erraz ulertzen da, gure hizkuntzak dituen oztopoak ez dituzten hizkuntzak ere oso kezkatuta daudenean. Nire ustez, kezka hauek gizartearen kuantifikazio nahietatik datoz. Gizarte handi eta ezagunentzat kultura espezializatuaren ikuspegi kuantifikatua arriskutsua bada, nola gaur egun ona izan daiteke guretzat beste gizartearen konpetentziak arteko ditugularik?

Gu, gizarte bezala hedatzen ez garen bitartean, inola ere ezin izango dugu, gure ikuspegia landu, eta guretik abiatu behar litzatekeen kultura espezializatua eskaini. Zenbat eta gizarte osasuntsuagoa orduan eta H.S. orekatsua. Hau esateak suposatzen du H.S. batek bi eratako helburuak jorratu behar dituela:

- a) helburu kualitatiboak, eta
- b) helburu kuantitatiboak.⁷

Eta H.S. bat hedatzea, HEZKUNTZAren lehen urratsetatik abiatzea da, hots, haurra hezkuntzari lotzetik, bere hizkuntza bizkortzetik eta sendotzetik hasten da, eta honela bide batez, pentsamendua aberasten da.⁸

Hezkuntz sistema baten ondorioak, eta bere ebaluaketa gizartearen irakur daitezke. Guk "gizarte osasuntsua", aipatu dugunean "gizarte gaixori" kontra jartzen diogu, eta horretarako, gizarteetan ematen den zenbait egoera begiratu genezake:⁹

1. Mobilitate soziala.
2. Berdintasuna.
3. Eskola-diseinuak eta hedapen-egariak.
4. Langabezia.
5. Kultura desberdinari buruzko jarrera eta adorea.
6. Irakasleko eta funtzio publikoaren arteko oreka

Ikastetxea eta ebaluaketa

Ikastetxea, gizarteak sortutako eskola-erakunde bat dugu. Eskola erakuntzak¹⁰, gizartearen zati berezi bati buruz hitz egitea suposatzen du. Orohar, esan dezakegu erakuntz ezagumenduak, gaurko gizartearen ematen diren korapiloak eta eguneroko aldaketak ulertzeko eta kontrolatzeko sortu direla. Gure ustez, eskola erakuntza sistema bat bezala harturik, eskolaren errealitatea ezagutzeko tresna egokia da. Gizartearen bezalaxe, eskola mundua ere, oso errealitate bihurria eta latza da. Bere osotasunean, ahalik eta ondoen aztertzeke ikuspegi

sistemikoa¹¹ azaltzen saiatuko gara, eta honetarako bi atal bereiztuko ditugu:

4.1 Erakuntz ingurua. Nola azter genitzake gizartearen eta eskolaren arteko harremanak? Hiru esparruren bitartez:

a) Esparru burokratikoa. Aldagai honen bidez, gizarteek, antolaketa administratiboen eredutik abiatuz, hezkuntza arloan duten joera ikusten da. Beraz, zuzenean hezkuntz sistema eta sistema hau arautzen duen legeria da aztergai. Ebaluaketaren eremua goian azpimarratu duguna izango da.

b) Esparru soziopolitikoa. Nahikoa zabala eta orokorra da. Hezkuntz sisteman eragina duten erakunde eta taldeen eragina ikusten da: irakasleen antolamendua, alderdi politikoaren eragina, administrazioaren zein erakunde desberdinen hezkuntz politika eta gizartean agertzen diren hezkuntz kezka-mota guztiak (kalitatea, porrota, efikazia, eskola-motak, hizkuntza/k, aukerak,...abar). Hemen, ageri dagoenez, ebaluaketaren eginkizuna ez da txantxetakoal!

d) Esparru berezia. Eskola eta bere inguruaren arteko harremanak aztertzen saiatzen da. Atal honetan, gurasoen elkarteak eta eskolordutik kanpoko ekintzak ikus daitezke. Ebaluaketak, orohar, herri edo hiria izango du langai, eta ondorioz batak eta besteak duten eragina eskolarekiko.

4.2 Azpisistemak. Ikastetxeak inguruarekin duen harremana ezagutu ondoren, barnean gertatzen dena jakin

behar dugu. Eskola bera, sistema bat bezala ulertzen badugu, esan genezake lau azpisistemaz osaturik dagoela:

1) Egitura-azpisistema. Eskolan egitura formala osatzen dutenez arduratzen da; bere arloak hauetxek izanik: eraketa-motak, zuzendaritza, sail didaktikoak, ikaslegoaren antolaketa, eta gainerako zerbitzuak.

2) Azpisistema psikosoziala. Kontutan hartzen ditu, ikastetxeko lankideek, erakundearekiko dituzten jarrera eta joerak. Beraz, atal honetan ikastetxe batean dagoen harremana, pizgarritasuna (sentimendu, balore, pentsamoldea), erakundearen osasuna, komunikazioa, aitzindaritza, eta gatazkak izango dira aztergai.

3) Azpisistema teknikoa. Ikastetxeko irakasle partaideek duten prestaketa zientifikoa eta ezagumendu teknikoaren multzoaz arduratzen da. Hau da, irakaslegoaren etengabeko hezkuntzaz, egitarauetz, metodologiak eta, jokaera-moldaketaz ari da.

4) Azpisistema administratiboa. Orohar, baliabideen administrazio ekonomikoaz, eta eraketaz zein lerroketaz kezkatzen da. Eskola pribatueta, erabaki hartzeaz ere arduratzen da.

Lau azpisistema hauek, eskolaren erakuntzaren errealitatera eramaten gaituzte. Beraien bidez, jakin dezakegu zerk eta nork osatzen duten azpisistema bakoitza eta nola bizi den erlazio hori ikastetxe bakoitzean.

Gainera ikastetxea, gizartearen zati berezia denez, azpisistema hauek

ikastetxetik kanpo, gizartearekin dituzten zerikusi guztiak adieraziko dizkigute.

Ikastetxea ebaluatzea, irizpide egokiak topatzean legoke. Errealitateaz hitz egingo diguten urratsak bilatzean legoke. Beraz ikastetxeko partaide diren guztiak sartu behar dira eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren baitan legoke.

Nola eska diezaiokegu eskolari, egokitasun apartaz eta trebez –ebaluaketa-prozesua– hausnartzea eta gainera, gizarteari arrakasta eskaintzea:

-hezkuntzaren HELBURU eta HELMUGAK jartzen dituztenek ez badute eskolarekin kontaktzen? Ikastetxe guztiek helburu eta helmuga batzuk lortu nahi dituzte. Nork jarri behar ditu hezkuntz helburuak? Herri administrazioaren erakunde gorenak, gizarteak, eskolak, irakasle bakoitzak, gurasoak? Azken funtsean eskolaren funtzioa dago eztabaidan.

-gure artean behintzat, gizartearen/ deformazio politiko-sozialagatik/ sasiordezkariek eskola-eremua euren esku hartzen bait dute.

-ikerketen berri, zuzenean, kezkarik eta ardurarik ez dutenean.

-pedagogiaren batzbesteko edo nazioarteko¹² berri eta ikuspuntuak, zein ibilaldiak lantzen ez dituztenean.

Gaur egun, Ikastetxez hauxe ulertzen dugu: Hezkuntz Sistema batek hezkuntza hedatzeko erabiltzen duen erakundea. Eta hezkuntza egitean, ikaslea, irakaslea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, hezkuntz egitaraua, jarrera... eta ikerketa konbinatzen dira.

Ikuspegi sistemikoaren bidez, konturatu gaitezke eskolaren eremua, barne eta kanpoko errealitateekin loturik dagoela. Beraz, errealitate hori ezagutzeko eta aldatzeko dugun ezagumendua "Hezkuntz Ebaluaketa kualitatiboa"¹³ dugula aukera egokia esan behar da.

Oharrak

- 1 LARROSA,J; *El trabajo epistemológico en pedagogía*, PPU, Bartzelona, 1990.
- 2 W.B.DOCRRELL, D.HAMILTON; *Nuevas reflexiones sobre la investigación educativa*. Narcea, Madril. 1982
- 3 Centre d'Etude et de Reflexion pour l'Action politique. *Un project educatif por la France*. Presses Universitaires de France, 1. edit., 1989, Paris.
- 4 Oteiza, J; *Quosque Tandem*. Colec. Azkue de Auñamendi. 4ºedic., 1983, sin numerar.
- 5 SANCHEZ CARRION, J.M.; TXEPETX; *Hizkuntza /Hezkuntza*. EHU. Bilbo.1990.orr.44.
- 6 Ibidem.
- 7 J.P. GOETZ, M.D. LECOMPTE; *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Morata, Madril, 1988.
- 8 R.S. NIKERSON Y OTROS; *Enseñar a pensar*. Paidos / M.E.C. Bartzelona. 1990.
- 9 R. GIROD; *Política educativa, lo ilusorio y lo imposible*. Kapelusz. Buenos Aires,1984.
- 10 A. MUÑOZ/M.ROMAN; *Modelos de organización escolar*. Cincel, Madril, 1989.
- 11 A. COLOM; *Sociología de la educación y teoría general de sistemas*. Oikos Tau, Bartzelona, 1979.
- 12 F. FERRER, *Educación comparada: fundamentos teóricos, metodología y modelos*. PPU. Bartzelona. 1990.
- 13 JAIONE APALATEGI, ISILIK pedagogi aldizkaria. 13.zenb.; Hezkuntz ebaluaketa, 9.11. orr., 1991.